BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5197

EBAZPENA, 2009ko urriaren 5ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, ingurumeneko baimen bateratua emateko dena poliuretanozko apar malguak poliesterrezko, polieterrezko eta aglomeratuzko aldaeretan fabrikatzeko eta eraldatzeko, Legutianoko udalerrian (Araba), eta Recticel Ibérica, S.L. enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2008ko apirilaren 25ean, Dominique Declerck jaunak, Recticel Ibérica, S.L. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, uztailaren 1eko 16/2006 Legeak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, Legutianoko udalerrian (Araba) poliuretanozko apar malguak horren poliesterrezko, polieterrezko eta aglomeratuzko aldaeretan fabrikatzeko eta eraldatzeko. Eskaerarekin batera ondorengo agiri teknikoak erantsi ziren:

- Recticel Ibérica, S.L. enpresaren IBB eskatzeko proiektu teknikoa.
- Recticel Ibérica, S.L. enpresaren IBB eskatzeko proiektu teknikoa. Laburpen ez-teknikoa.
- Recticel Ibérica, S.L. enpresaren konfidentzialtasun-txostena.
- Atmosfera kutsa dezaketen fokuen memoria tekniko deskribatzailea.
- Hondakin arriskutsuak minimizatzeko azterlana-2006ko jarraipen-txostena-EAEko sektore kimikoa.
- Kanpoko zarata-mailaren karakterizazioaren txostena.
- Industriako eta merkataritzako ontziei buruzko prebentzio-plana-2008ko jarraipen-txostena EAEko sektore kimikoa.
- Phase II Environmental Site Assessment (Lagin-biltzeak).
- Lurzoruaren egoeraren aurretiazko txostena.
- Proiektuak Legutianoko hirigintza-plangintzarekin duen bateragarritasunari buruzko udal-txostenaren eskaera, 2008ko apirilaren 1ekoa.

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Recticel Ibérica, S.L. enpresak, besteak beste, jarduerarako 1967ko urriaren 13ko baimena zuen, poliuretanozko aparren fabrika instalatzeko. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: ibilgu publikora isurtzeko baimena, 2008ko urtarrilaren 8koa, uren arloan indarrean den araudian xedatutakoari jarraituz; eta hondakin arriskutsu eta hondakin ez-arriskutsuen ekoizle izateko baimena, 2007ko urriaren 10ekoa eta 2008ko martxoaren 4koa, hurrenez hurren.

2008ko ekainaren 11n, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidea adosteari dagokionez. Zehazki Legutianoko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Ebroko Ur Konfederazioari eskatu zitzaien txostena.

2008ko uztailaren 14an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2008ko uztailaren 24an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2008ko urriaren 10ean emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen, 30 egun balioduneko epean, Recticel Ibérica, S.L. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2008ko urriaren 29an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan iragarri zen 2008ko urriaren 26an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

2008ko abenduaren 3an, sustatzaileak galdara berria instalatzea aurreikusi zuela jakinarazi zion ingurumen-organoari, aglomeratu-saila lurrunez hornitzeko.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoaren 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko abenduaren 12an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Legutianoko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Ebroko Ur Konfederazioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko abenduaren 18an, sustatzaileak informazioa aurkeztu zuen ingurumen-organoaren aurrean isuri atmosferikoen foku berri bati buruz eta instalazioan zegoen fokuetako bat desklasifikatzeari buruz.

2009ko ekainaren 12an, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Recticel Ibérica, S.L. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

2009ko uztailaren 9an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan, hainbat ohar egiten ziren ingurumeneko baimen bateratuaren ebazpen-proposamenari buruz. Aurkeztutako alegazioen edukia kontuan izanda, 2009ko urriaren 1ean beste txosten bat eskatu zitzaion Ebroko Ur Konfederazioari.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horrek atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea du helburu, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarri eta ingurumen osoaren babes-maila altua lortzeko.

Apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren, uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duenaren, 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak, 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusi teknikoa dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoaren, 9. artikuluari jarraituz, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen horren oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko;

horretarako, baimena ematen parte hartuko duten herri administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi izan dira. Recticel Ibérica, S.L. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena; ibilgura isurtzeko baimena; eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadurari aurrea hartu eta zuzentzeari dagozkionak. Era berean, beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek egindako txostenak aurkeztu dituzte, espedientean parte hartzen dutela agerian utziz.

Hala eta guztiz ere, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak ordezten du azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamenduan aurreikusitako jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura; ez du ordezkatzen ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko guztian ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Recticel Ibérica, S.L. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzkoan, aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Legutianoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenen erabilera eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2007ko abuztuko «Reference Document on the Best Available Techniques in the Production of Polymers» BREF txostenaren edukia hartu da kontuan. Horrez gain, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan aplikatzekoa da batez ere apirilaren 30eko 728/1998 Errege Dekretua, ontzien eta ontzi-hondakinen apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta gauzatzeko Erregelamendua onartzen duena.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Recticel Ibérica, S.L. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoaren 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duenaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2009ko ekainaren 12an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; uztailaren 1eko 16/2002 Legea, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko; ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzkoa, maiatzaren

8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia. Horrenbestez, honako hau,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.– Egoitza soziala Sta. Perpetua Mogodáko udalerriko (Bartzelona) Catalunya kaleko 13 P.I. Can Oller-en eta IFK: B62381439 zenbakia duen Recticel Ibérica, S.L. enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematea Legutianoko udalerrian poliuretanozko apar malguak horren poliesterrezko, polieterrezko eta aglomeratuzko aldaeretan fabrikatzeko eta eraldatzeko, ebazpen honen bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Halaber, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluaren arabera Arroko Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzen kalterik gabe.

Jarduera uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 1. eranskineko 4.1 kategorian dago sartuta: «Oinarrizko produktu kimiko organikoak fabrikatzeko instalazio kimikoak».

Recticel Ibérica, S.L. enpresaren instalazioak 58.874 m^2-ko lur zati batean daude, oraingo Gojain industrialdeko lursailetan, Legutianoko udalerrian, Arabako probintziaren iparraldean.

Lantegian egiten den fabrikazio-jarduera gai plastikozko zenbait produkturena da. Urteko gehienezko ekoizte-ahalmena 15.000 tonakoa da poliesterra, polieterra, aglomeratua eta azpiproduktua kontuan izanda.

Lantegiaren jarduera, zehazki, poliuretanozko apar malguak bloke jarraitu gisa fabrikatzea da, poliesterrezko, polieterrezko eta aglomeratuzko aldaeretan, eta ondoren horiek manufakturatzea bezeroei entregatzeko.

Fabrikatze-prozesuak ondorengo etapak ditu:

1.– Lehengaiak hartzea: poliola zisterna batean hartzen da eta 20 edota 40 m^3-ko edukierako andel finkoetan biltegiratzen da; tolueno diisozianatoa, berriz, 40 m^3-ko edukierako zisternetan jasotzen da. Guztira 22 tanga daude bi produktu horiek biltegiratzeko.

2.– Apartzeko prozesua: lehengai hauek nahasten dira: poliola, isozianatoa, ura, katalizatzaileak (aminak eta eztainu-gatzak), egonkortzaileak (silikonak) eta beste (koloregaiak, atzeratzaileak, etab.) irabiagailu batean. Parte hartzen duen lehengai bakoitza zirkuitu independentetatik joaten da apartzeko tunelaren hasierako buru batera. Produktua aurrez irabiatuta gehitzen da, produktua paperari gehiegi itsastea saihesteko alde batetik silikona-inprimazio bat duen zelulosa-paper baten gainean. Paperak aurrera egiten du uhal garraiatzailean zehar, eta denbora nahiko laburrean, apartutako blokeak gehienezko garaiera hartzen du. Apartzearen hasierako erreakzio-tenperatura 40 ºC ingurukoa da, eta gehienezko erreakziora arte lehortzean sortzen den igoera geldi bat aurreikusten da, 130 ºC ingurukoa.

3.– Lehortzea eta bitarteko biltegiratzea: apartzeko prozesua amaitu ondoren, poliesterrezko eta polieterrezko blokeak apal-biltegian uzten dira lehortzeko, eta lehortu ondoren bloke-biltegian pilatzen dira.

4.– Eraldaketa: poliuretanozko apar malguzko blokeen eraldaketa ebaketa horizontal jarraitu bidez (biribilkiak) burutzen da, bloketan edo plantxetan ebakita. Poliesterrezko eta polieterrezko azpiprodukturutik beste produktu batzuk lor daitezke.

Lantegian erabilitako energia-iturriak hauek dira: energia elektrikoa, ebakitzeko eta apar-makinen jardunerako, eta aglomeratu-instalaziorako (1.654.785 kWh-ko urteko kontsumoa); fuel-olioa (359 t/urteko kontsumoa), eta gasolioa (68.000 l/urte), bai konforterako, bai prozesurako erabilitako zenbait galdara-ekipotan kontsumitzeko.

Ur-hornidura hornidura-sare nagusiaren bidez egiten da, eta urteko ur-kontsumoa 10.896 m^3-koa da. Ur hori erabilera sanitarioetarako erabiltzen da batik bat, eta proportzio txiki bat prozesuko erreakzio kimikoetan erabiltzen da.

Recticel Ibérica, S.L. enpresak 22 isurtze-foku ditu: horietako hemezortzi apartzeko lerroari (9), aglomeratu-lerroari (5) eta instalazio osagarriei (4) lotutako foku sistematikoak dira. Gainerako lauak foku ez-sistematikoak dira.

Sortutako hondakin-urak sanitarioak dira, eta barneko saneamendu-sarearen bidez kokalekuan dauden 7 hobi septikoetara eramaten dira. Euri-ur «garbiak» ur sanitarioekin elkartzen dira sare bateratu batean, enpresan dauden arazketa-sistemetan (7 hobi septiko) tratatu aurretik. Isurketa Bageta ibaira egiten da. Ez dago industria-prozesuko hondakin-urik.

Hondakinak sortzen dituzten prozesuak apar malguen fabrikaziokoak eta lantegiko mantentze-lan orokorretakoak dira. Sortutako hondakin arriskutsu nagusiak hauek dira: isozianatoa, silikona eta aminak dituzten urak, disolbatzaile halogenatu erabilia eta gai arriskutsuekin kutsatutako plastikozko ontziak; lantegian sortutako hondakin ez-arriskutsu nagusiak, berriz, hobi septikoetako lohiak, industriako zaborra eta txatarra dira.

Enpresak ezarri dituen TEO nagusiak hauek dira: apar-makinan eta NO_x baxuko galdaretako erregailuetan disolbatzaileak ordezten dituen garbiketa-sistema.

Bigarrena.– Recticel Ibérica, S.L. enpresak Legutianoko udalerrian poliuretanozko apar malguak horren poliesterrezko, polieterrezko eta aglomeratuzko aldaeretan fabrikatzeko eta eraldatzeko sustatutako jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz eman dizkion datuetan aldaketarik badago, Recticel Ibérica, S.L. enpresak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Recticel Ibérica, S.L. enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanporatuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-za-

rratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta zainduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Recticel Ibérica, S.L. enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametroa (m)	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	01002517-01	FE02 Apartzeko lerroko sistema zentralizatua	11	0,5	B	529744,47	4757123,97
2	01002517-02	FE 2.1. Apartzeko lerroa	11	0,7	B	529745,23	4757116,32
3	01002517-03	FE 2.2. Apartzeko lerroa	11	0,7	B	529745,23	4757116,32
4	01002517-04	FE 3.1. Apartzeko lerroa	11	0,6	B	529745,23	4757107,9
5	01002517-05	FE 3.2. Apartzeko lerroa	11	0,6	B	529745,23	4757107,9
6	01002517-06	FE04. Apartzeko lerroa	11	0,5	B	529746	4757101,78
7	01002517-07	FE05. Apartzeko lerroa	11	0,5	B	529746	4757089,54
8	01002517-08	FE06. Apartzeko lerroa	11	0,6	B	529745,23	4757070,41
9	01002517-09	FE08 Apartze-blokearen zeharkako ebaketaren fokua	11	0,3	B	529745,23	4757012,23
10	01002517-10	FE 09 Apar-makina txikiaren fokua	11	0,5	B	529762,83	4757101,20
11	01002517-11	FE10 I+G laborategiko kanpaia	11	0,15	C	529762,83	4757107,9
12	01002517-12	FE11 I+G beso giltzatua	10	0.25	C	529762,83	4757116,32
13	01002517-13	FE12 Apar-makinaren mantentze-lanak	11	0,3	C	529753,65	4757067,35
14	01002517-14	FE13 Vaporex galdara	11	0,3	C	529833,93	4757061,23
15	01002517-15	FE14 Aglomeratuko moldearen erauzketa	7	0,5	B	529833,22	4757065,82
16	01002517-16	FE15.1. Aglomeratuko lurrunen erauzketa, 1. postua (ezk.)	7	0,45	B	529860	4757104,84
17	01002517-17	FE15.2.Aglomeratuko lurrunen erauzketa, 2. postua (ezk.)	7	0,45	B	529859,24	4757097,19
18	01002517-18	FE17 Propano-galdara. Aglomeratu-lerro berria	11,5	0,30	C	529871	4757105

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametroa (m)	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
19-D	01002517-19	Uhal garraiatzailea berotzeko galdararen fokua	11	0,25	Foku ez-sistematikoa	529746	4757081,12
20-D	01002517-20	Pistola azetonaz garbitzea	11	0,30	Foku ez-sistematikoa	529766,65	4757052,81
21-D	01002517-21	Sukoitasun-entseguetako kanpaia	11	0,10	Foku ez-sistematikoa	529814,09	4757046,69
22-D	01002517-22	Aurrepolimeroaren berokuntzako erauzketa	7	0,20	Foku ez-sistematikoa	529821,74	4757058,93

«FE 09 Apar-makina txikiaren fokua» 10. fokuari dagokionez, foku sistematiko gisa desklasifikatzeko, lanerako moduaren deskribapena eta lantegiaren guztizko jardun-denborarekiko portzentaje-kalkulua igorri beharko dira.

«Apartzeko buruko besoa» fokuari dagokionez, 2008ko uztailaren 28an aurkeztutako agirietan eraitsita zegoela adierazten zen, baina benetan eraitsita, jardun gabe edo jardunean dagoen argitu beharko da, eta azken kasuan, hori desklasifikatzeko beharrezko informazioa aurkeztu beharko da.

Gainera, prozesuan erabiltzen ez diren beste 4 galdara eta aire-sorgailu ditu instalazioak, horietako bi 70 kWt-tik gorako potentziakoak.

Bestetik, isuri barreiatu jarraituak sortzen dira apar-makina berrian.

B.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gaindituko:

Foku zk.	Izendapena	Kutsatzaileak	IMB (mg/Nm3)
1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8	FE02 Sistema zentralizatua FE 2.1., FE 2.2., FE 3.1, FE 3.2., FE 04, FE 05 eta FE 06 apartzeko lerroa	Aminak (mg/Nm^3)	20
		Isozianatoak (mg/Nm^3)	0,1
		Karbono organikoaren guztizkoa (KOG) (mg C/Nm^3)	100
9	FE08 Apartze-blokearen zeharkako ebaketaren fokua	Aminak (mg/Nm^3)	20
		Guztizko partikula solidoak (mg/Nm^3)	50
10	FE 09 Apar-makina txikiaren fokua	Aminak (mg/Nm^3)	20
		Isozianatoak (mg/Nm^3)	0,1
		Karbono organikoaren guztizkoa (KOG) (mg C/Nm^3)	100
11, 12	FE10. I+G laborategiko kanpaia eta FE11 I+G beso giltzatua	Aminak (mg/Nm^3)	20
		Karbono organikoaren guztizkoa (KOG) (mg C/Nm^3)	100
		Isozianatoak (mg/Nm^3)	0,1
13	FE12 Apar-makinaren mantentze-lanak	Karbono organikoaren guztizkoa (KOG) (mg C/Nm^3)	100

Foku zk.	Izendapena	Kutsatzaileak	IMB (mg/Nm3)
14	FE13 Vaporex galdara	CO (ppm)	1445
		NO_X (ppm)	300
		SO_2 (mg/Nm^3)	850
		Opakutasuna (Bacharach)	2
15, 16, 17	FE14 Aglomeratuko moldearen erauzketa FE15.1. Aglomeratuko lurrunen erauzketa, 1. postua (ezk.) FE15.2.Aglomeratuko lurrunen erauzketa, 2. postua (ezk.)	Guztizko partikula solidoak (mg/Nm^3)	50
		Karbono organikoaren guztizkoa (KOG) (mg C/Nm^3)	100
18	FE17 Propano-galdara. Aglomeratu-lerro berria	CO (ppm)	500
		NO_X (ppm)	300

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

B.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak 1976ko urriaren 18an emandako Agindua (industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurre hartu eta hori zuzentzeari buruzkoa) bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziak (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: gai plastikozko hainbat produkturen fabrikazioa.

Jarduera-taldea: Kimika.

Mota-taldea-EJSN: 2-9-25.210. Gai plastikozko hainbat produkturen fabrikazioa.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Ur sanitarioak eta euri-urak	Bulegoak eta aldagelak	Ibilgua	Zadorra	C1	X: 529.800 Y: 4.756.900

B.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

Eguneko gehienezko bolumena: 40 m^3.

Urteko gehienezko bolumena: 9.000 m^3.

B.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ibilgura egiten den isurketaren ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira soil-soilik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
Oxigeno-eskari biologikoa (OEB_5)	< 40 mg/l
Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)	< 160 mg/l
Olio eta koipeak (O. eta K.)	< 20 mg/l
Solido esekiak (SE)	< 80 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Baimen honek baldintza honetan berariaz aipatutako substantzien isurketak bakarrik hartzen ditu barne eta, batez ere, maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen substantzia arriskutsuak. Errege Dekretu horren bidez apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen da, abuztuaren 2ko Urei buruzko 29/1985 Legearen Atariko, I, IV, V, VI eta VIII. tituluak garatzen dituen Jabari Publikoko Urguneen Erregelamendua onartzen duena.

Ekoizte-prozesuan erabilitako lehengaien isurketa saihestuko beharko da, eta horretarako segurtasun-neurri egokiak izan beharko dira ustekabeko edozein isurketa saihestearren.

Ibaiko isurketaren immisioak ingurumeneko kalitate-helburuak beteko ditu, eta ez du erasandako ur-masak duen egoera narriatuko.

B.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Hondakin-uren arazketa-instalazioek zazpi hobi septiko dituzte funtsean, isuritako kutsatzaile-karga minimizatzeko dagokien iragazki biologikoa dutenak, eta guztira 400 pertsona ingururentzako ohiko erabilerarako diseinua. Hobi horietara eramaten dira egun bai enpresako ur sanitarioak, bai bertako euri-ur garbiak.

Arazketa osagarria eskatu ahal izango da, erasandako ur-masaren egoera ekologikoari edota kimikoari eragiten dion gorabehera negatiboren bat antzematen bada ingurune hartzailean.

Mugak ezarri diren arazketa-instalazioetako efluenteen irteera bakoitzean kutxeta bat izango da, eta bertan isurketaren lagin esanguratsuak jaso eta emaria neurtu ahal izango da. Azken isurketaren kutxetak kanpotik sartzeko aukera izango du, jarduera garatzen den esparruan sartu behar izan gabe.

Baimenaren titularrak kolektoreak eta arazketa-instalazioak jardun-egoera egokian zaindu beharko ditu. Horrela, betebehar horietarako pertsona bat izendatu beharko du eta instalazioak zaintzeko eta jarduteko arau zorrotzak eta beharrezko neurriak emango dizkio.

Kasu honetan, derrigorrezkoa izango da isurketaren emaria neurtzeko sistema bat izatea, emariaren aldiuneko balioa eta metatua noiznahi jakin ahal izateko.

Hilabete bateko epean emari-neurgailu bat instalatzea teknikoki eta/edo ekonomikoki bideraezina dela justifikatzen bada, isuritako emaria zeharkako metodoen bidez neurtzea baimenduko da, betiere isuritako emariaren balioa bidaltzen bada, C.2 atalean adierazten den bezala.

Gauzatzeko dauden jarduketak:

Euri-urak eta ur beltzak bereizi behar dira, sare bereizlearen bidez.

Hondakin-urek eta asimilagarriek hartzen duten tratamenduari dagokionez, beharrezkotzat jo da efluenteak kontzentratzea, ibilgura isuri aurretik eta euri-urak eta ur beltzak bereizi ondoren arazketa-sistema egokietan tratatzeko.

Gauzatzeko dauden jarduketen obrak baimen hau indarrean dagoen epean burutu beharko dira.

Baimen honen titularrak idatziz jakinarazi beharko du Ingurumen Sailburuordetzan obra horien amaiera. Aitortzeko akta onartuta, kasu bakoitzari dagokion kalitate-helburua osotasunean eskatu ahal izango da.

Etorkizunean isurketa hori saneamendu-sare orokor batera lotu badaiteke, sare horretara lotu beharko da, eta Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko da.

B.2.5.– Isurketen kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, hauxe da isurketen kontrol-kanona:

(IKK): Isurketen kontrol-kanona = $V \times P_u$.

$P_u = P_o \times K_m$.

$K_m = K_2 \times K_3 \times K_4$.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_o = Oinarrizko prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

K_m = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

K_2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

K_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

K_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

Isurketa: erabilera sanitarioko urak:

V: Bolumena P_o: Hondakin-ura: Industriala K_2: 2. mota K_3: Tratamendu egokia K_4: Kategoria-eremua: I	V = 9.000 m^3 / urte P_o = 0,03005 €/m^3 K_2 = 1,09 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

K_m = 1,09 × 0,5 × 1,25 = 0,68125.

Isurketen kontrol-kanona = 9.000 m^3 × ,03005 euro/m^3 × 0,68125 = 184,24 euro/urte.

Administrazio eskudunak isurketen kontrol-kanonaren likidazioa egin eta jakinaraziko du, dagokion urteko ekitaldia amaitu ondoren.

Isurketen kontrol-kanona ez da lotuta egongo saneamendu- eta arazte-lanak finantzatzeko autonomia-erkidegoek edo udalek ezar ditzaketen kanonekin edo zergekin.

Zenbateko hori ez da aldatuko baimen honetan adierazitako isurtzeko baldintzak edo isurketen kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

B.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak apirilaren 21eko 10/1998 Legean, hondakinei buruzkoan, eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira horien izaera zehaztu eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako arauekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ustekabeko jarioak

kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Legutianoko Udalean.

B.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

● 1. Prozesua: «Apar malguen fabrikazioa».

○ 1. hondakina: «Poliolak».

– Identifikazioa: B62381439/012967/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q6//D15//S12//C41/51//H5//A501(1)//B5514.

– EHZ: 080409.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 t.

Apartzeko prozesuan sortzen da; aparraren osagai nagusietako bat da. Hondakinerako 200 litroko metalezko bidoietan biltzen da apartzeko sailaren ondoan, eta bete ondoren hondakin-biltegira eramaten dira.

○ 2. hondakina: «Mesamoll-a».

– Identifikazioa: B62381439/012967/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//P5//C51//H5//A501(1)//B5514.

– EHZ: 160708-

– Urtean sortutako kantitatea: 440 kg.

Apartzeko prozesuan sortzen da; ezin erabili diren lehengai-hondarrak dira. Hondakinerako 200 litroko metalezko bidoietan biltzen da apartzeko sailaren ondoan, eta bete ondoren hondakin-biltegira eramaten dira.

○ 3. hondakina: «Isozianatoa».

– Identifikazioa: B62381439/012967/1/3.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//P20//C37//H6//A501(1)//B5514.

– EHZ: 080501.

– Urtean sortutako kantitatea: 2 t.

Apartzeko prozesuan sortzen da; aparraren osagai nagusietako bat da. Hondakinerako 200 litroko metalezko bidoietan biltzen da apartzeko sailaren ondoan, eta bete ondoren hondakin-biltegira eramaten dira.

○ 4. hondakina: «Silikonak eta aminak dituzten urak».

– Identifikazioa: B62381439/012967/1/4.

– Hondakinaren kodea: Q5//D9//L20//C43//H5//A501(1)//B5514.

– EHZ: 080415.

– Urtean sortutako kantitatea: 3 t.

Apartzeko prozesuan sortzen da; silikona eta aminen eta uraren nahasketa bat da. Hondakinerako 200 litroko metalezko bidoietan biltzen da apartzeko sailaren ondoan, eta bete ondoren hondakin-biltegira eramaten dira.

● 2. Prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Olio erabiliak».

○ Identifikazioa: B62381439/012967/2/1.

○ Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A501(1)//B0019.

○ EHZ: 130110.

○ Urtean sortutako kantitatea: 1 t.

Zenbait makinatan olioa aldatzeko eragiketetan sortzen da; olio mekaniko eta hidrauliko erabiliak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoi batean biltzen da sortzen den postuan edo postuetan, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Berunezko bateriak».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8//A501(1)//B0019.

– EHZ: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Beruna eta disoluzio azidoa duten bateria erabiliak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Hondakinarentzat identifikatutako kutxan biltzen da, horretarako berariaz jarritako eremuan.

○ 3. hondakina: «Hodi fluoreszenteak».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6/14//A501(1)//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Merkurioa duten lanpara erabiliak birjartzean sortzen da. Hondakin hori identifikatzeko kutxan biltzen da hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 4. hondakina: «Ekipo elektriko eta elektronikoak».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/4.

– Hondakinaren kodea: Q14//R4//S40//C6/18//H6/14//A501(1)//B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Ekipo elektrikoak eta elektronikoak birjartzean sortzen da; baztertutako ekipo ofimatikoak dira. Hondakin hori identifikatzeko kutxan biltzen da hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 5. hondakina: «Taladrina erabilia».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/5.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L9//C51//H5//A501(1)//B0019.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 300 kg.

Mekanizazio-eragiketetan taladrina erabiltzean hondakin gisa sortzen da; emultsio oliotsu bat da. Makinak garbitzean hondakin hori identifikatzeko bidoian biltzen da, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 6. hondakina: «Kedarra».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/6.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S25//C23//H13//A501(1)//B0019.

– EHZ: 190111.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Galdaren mantentze-lanen prozesuan sortzen da; hidrokarburo-errautsak dira. Galdaren mantentze-lanak egitean bidoi hermetikoan biltzen da, eta hondakin arriskutsuen biltegira eramaten da.

○ 7. hondakina: «Fuel-olio ez-erabilgarria».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/7.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//P9//C51//H3b/5/A501(1)//B0019.

– EHZ: 130701.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Galdaren mantentze-lanen prozesuan sortzen da; fuel-olio zikina da. Galdaren mantentze-lanak egitean 200 litroko bidoietan biltzen da, eta horretarako leku identifikatuan biltegiratzen da hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 8. hondakina: «Gasolioa»

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/8

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//L9//C51/H3b/5//A501(1)//B0019

– EHZ: 130701

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin

Galdaren mantentze-lanen prozesuan sortzen da; gasolio zikina da. Galdaren mantentze-lanak egitean 200 litroko bidoietan biltzen da, eta horretarako leku identifikatuan biltegiratzen da hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 9. hondakina: «Disolbatzaile ez-halogenatu erabilia».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/9.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41/H3b/5//A501(1)//B0019.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 2 t.

Aparra sortzeko lanabesak etilo azetatoarekin, azetonarekin eta dimetil formamidarekin erabilitako disolbatzailetan garbitzean sortzen da. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da apartzeko prozesuan, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 10. hondakina: «Disolbatzaile halogenatu erabilia».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/10.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//L5//C40/H6//A501(1)//B0019.

– EHZ: 140602.

– Urtean sortutako kantitatea: 500 kg.

Apartzeko prozesuan sortzen da, batik bat makinak eta apar-ekipoak garbitzean; kloruro-hondarrak dituen disolbatzaile erabilia da. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 11. hondakina: «Koloregaia duten urak».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/11.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//P12//C43//H05//A501(1)//B0019.

– EHZ: 080111.

– Urtean sortutako kantitatea: Zehazteke.

Apar-makina garbitzeko prozesuan sortzen da, sei hilean behin. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den postuan edo postuetan, eta bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 12. hondakina: «Bustitako solidoak».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/12.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S40//C41/51//H5A501(1)//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Xurgatzaileak eta ehunkiak biltzean sortzen da; olioz, disolbatzailez eta pinturaz bustitako trapuak, material xurgatzailea eta iragazkiak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den postuan edo postuetan, eta ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 13. hondakina: «Metalezko ontziak (gai arriskutsuez kutsatuak)».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/13.

– Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C41/43/44/51//H5//A501(1)//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 t.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; aminak, silikonak, mesamolla eta disolbatzaile ez-halogenatuak izan dituzten metalezko ontziak dira. Soltean biltzen da horretarako leku identifikatuan, hondakin arriskutsuak biltegiratzeko eremuan.

○ 14. hondakina: «Plastikozko ontziak (gai arriskutsuez kutsatuak)».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/14.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C43//44//H5//A501(1)//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 2,5 t.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da; batik bat aminak eta silikonak izan dituzten plastikozko ontziak dira. Soltean biltzen da horretarako leku identifikatuan, hondakin arriskutsuak biltegiratzeko eremuan.

○ 15. hondakina: «Laborategiko erreaktibo organikoak».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/15.

– Hondakinaren kodea: Q3//D15//L40//C23-41//H6//A501(1)//B0019.

– EHZ: 160506.

– Urtean sortutako kantitatea: 20 l.

Laborategiko analisietan produktu kimikoak erabiltzearen ondorioz sortzen da. Horretarako leku identifikatuan biltegiratzen da.

○ 16. hondakina: «Aerosol hutsak».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/16.

– Hondakinaren kodea: Q14//R13//S39//C40//H3B//A501(1)//B0019.

– EHZ: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: 5 kg.

Mantentze-lan orokorretan eta ekipoenetan sortzen da. Horretarako leku identifikatuan biltegiratzen da.

○ 17. hondakina: «Laborategiko erreaktibo ez-organikoak».

– Identifikazioa: B62381439/012967/2/17.

– Hondakinaren kodea: Q3//D15//L40//C23-41//H6//A501(1)//B0019.

– EHZ: 160506.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Laborategiko analisietan produktu kimikoak erabiltzearen ondorioz sortzen da. Horretarako leku identifikatuan biltegiratzen da.

Sustatzaileak koloregaia duten urak izeneko hondakinaren urteko kantitate sortua aurkeztu beharko du.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereiziak erabiliko dira, duten tipologia dela-eta, jarioren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu zezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak (maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzkoa, betearazteko oinarrizko araudia onartzen du Dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte; itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak ezin izango dira sei hilabetetik gora biltegiratu.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, beste hondakin-kudeatzaile batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena eginda dagoela, araudian zehaztutako aurretiaz, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko du jatorritik helmugaraino. Recticel Ibérica, S.L. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Recticel Ibérica, S.L. enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren, industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duenaren, eta irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duenaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

j) Recticel Ibérica, S.L. enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituen artean, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu 1999ko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituenaren baldintzak, eta otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua, aurreko errege-dekretua aldatzen duena.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Recticel Ibérica, S.L. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

l) Recticel Ibérica, S.L. enpresak urtero adierazi beharko du Ingurumen Sailburuordetzan ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

m) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko da Ingurumen Sailburuordetzara.

n) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Recticel Ibérica, S.L. enpresak prebentziozko neurriak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

o) Aurreko e), f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), l) eta m) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela IKS-eeM Sistema erabilita.

p) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Recticel Ibérica, S.L. enpresak otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan, amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (t)
Tonerrak eta kartutxoak	080313 080318	Zerbitzu Orokorrak	50 unitate
Paketatzeko kartoia eta papera	150101		7,38
Paketatzeko plastikoa	150102		14,42
Plastikozko ontziak	150102		7 unitate
Zura, palet-hondarrak	150103		1,06
Metalezko ontziak	150104		15 unitate
Ontzi konposatuak	150105		100 unitate
Industria-zaborra	200301		62,60
Apar-ebakinak eta -puntak	160119	Apartzea	
Txatarra	200140	Mantentze-lanak	39,89
Hobi septikoetako lohiak	200304	Orokorra	Zehazteke

a) Sortutako hondakin ez-arriskutsu hauen kantitatea xehatu beharko da: «Apar-ebakinak eta –puntak» eta «Txatarra». Halaber, «Hobi septikoetako lohiak» hondakin ez-arriskutsuaren sortutako kantitatea adierazi beharko da.

Hondakin ez-arriskutsuen biltegien deskribapen zehatz bat aurkeztu beharko da, dimentsioak, edukiera, estalkiak badituzten, erabilitako segurtasun-irizpideak, etab. azaltzen dituena.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, baimendutako berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune bati.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

d) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Recticel Ibérica, S.L. enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo horien agiri ofizial baliokideak, beharrezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

e) Halaber, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin, hondakinak zabortegian utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Erregistro bat egingo da, datu hauekin: hondakin guztien kantitatea, izaera, identifikazio kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

g) Atal honetako d), e) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta f) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela IKS-eeM Sistema erabilita.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Recticel Ibérica, S.L. enpresak lurzoruaren babesa ziurtatzeko behar diren neurriak hartu beharko ditu, eta bereziki hauek:

a) Langileentzat eta lanean hasi berri guztientzat programatutako ingurumen-prestakuntzan arriskuak berariaz tratatu, ingurumenarekiko sentsibilizazioaren bidez.

b) Produktu kimikoetarako armairu homologatuak jarri komenigarri ikusten den kasuetan eta stockaren kontrolerako.

c) Jario-simulazioak eta lurzorua kutsatzeko arriskua dagoen puntuetara aldizkako ikuskapenak egin, ezarritako prebentziozko neurriak abian direla ziurtatzeko.

Gainera, edozein arrazoirengatik lurzoruak induskatzea eragingo duten obrak aurreikusten direnean, induskatu behar diren materialak karakterizatu behar dira sor daitekeen kutsaduraren ondorioak prebenitzeko eta material horiek behar bezala kudeatzeko bideak zehazteko. Karakterizazioaren emaitzak eta aurreikusitako helmuga zehatza Ingurumen Sailburuordetza honetara igorri behar dira material horiek atera aurretik, lanak onartu ahal izateko. Igorpena eta onarpena, hala badagokio, ebazpen honen H atalean jasotako aldaketa-erregimenaren esparruan egingo dira.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera honako hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB(A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB(A) ere gehienezko baliorik altuenetan.

b) Jarduera honako hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB(A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB(A) ere gehienezko baliorik altuenetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB(A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko akustikoki oso sentikorrak diren aldeetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Recticel Ibérica, S.L. enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Foku zk.	Foku-kodea	Izendapena	Kutsatzaileak	Maiztasuna
1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8	01002517-01, 01002517-02, 01002517-03, 01002517-04, 01002517-05, 01002517-06, 01002517-07 eta 01002517-08	Apartzeko lerroko sistema zentralizatua, apartzeko lerroko fokuak	Aminak, isozianatoak (guztizko NCO talde gisa), karbono organikoaren guztizkoa (KOG)	3 urtero KEB batek
			Metileno kloruroa	Lehen isuri-kontrola KEB batek
9	01002517-09	Apartze-blokearen zeharkako ebaketaren fokua	Aminak, guztizko partikula solidoak	3 urtero KEB batek
10	01002517-10	Apar-makina txikiaren fokua	Aminak, isozianatoak (guztizko NCO talde gisa), karbono organikoaren guztizkoa (KOG)	Sistematikoa den ala ez berresteke
11, 12,	01002517-11 eta 01002517-12	«I+G laborategiko kanpaia» fokua eta «I+G beso giltzatua» fokua	KOG, guztizko kloruroak (guztizko konposatu klorodunak), isozianatoak (guztizko NCO talde gisa)	5 urtero KEB batek
13	01002517-13	Apar-makinaren mantentze-lanak	KOG, dimetilformamida	3 urtero KEB batek*
14	01002517-14	Vaporex galdara (gasolioa)	CO, NO_X, SO_2, opakutasuna	5 urtero KEB batek
15, 16, 17	01002517-15, 01002517-16 eta 01002517-17	Aglomeratuko moldearen erauzketaren fokua eta Aglomeratuko lurrunen erauzketaren fokua	Guztizko partikula solidoak, karbono organikoaren guztizkoa	3 urtero KEB batek
18	01002517-18	Propano-galdara. Aglomeratu-lerro berria	CO, NO_X	5 urtero KEB batek

* Maiztasuna hausnartu egin daiteke dimetilformamida erabiltzen ez bada.

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu (KEB) batek egin beharko ditu (zortzi orduko hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostena Ingurumen Sailburuordetza honen jarraibide teknikoetan ezarritakora egokitu beharko da. Nolanahi ere, isurien kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Adierazitako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidali beharko dira. Isuri atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

d) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta 1976ko urriaren 18ko Aginduak, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoak, 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, etab.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Ur sanitarioak eta euri-urak	X:529.822 Y: 4.756.915	pH-a	Hiru hilean behin	Kanpokoa
			Oxigeno-eskari biologikoa (OEB_5)		
			Oxigeno-eskari kimikoa (OEK)		
			Olio eta koipeak (O. eta K.)		
			Solido esekiak (SE)		

Isurketa horren karakterizazioa aurreko taulan adierazitako koordenatu-puntuan horretarako jarritako kutxetan egingo da, hots, isurketa hondakin-ura Bageta ibaira eramaten duen kolektorera gehitu aurretik, eta karakterizazioa eguraldi lehorrarekin egingo da.

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Hidrauliko Publikoaren 255. artikulua) eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.2.3 atalean adierazitako parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Titularrak aldizkako txostena igorriko die Ingurumen Sailburuordetzari eta Ebroko Ur Konfederazioari, eta bertan datu hauek azalduko dira:

● Hiru hilero: isurketaren adierazpen analitikoa, efluentearen emariari eta konposizioari dagokienez (hiruhilekoan egindako efluenteen kontrol-analisi guztiak barne egongo dira).

● Urtero: tratamendu-sistemaren ustiapeneko gorabeheren adierazpena, eta isurketaren hobekuntzan lortutako emaitzak. Arazketa-instalazioen mantentze-lan eta garbiketa zuzena egiaztatzen duten agiriak erantsi behar dira, batez ere egindako lohi-ateratzeei buruzkoak.

f) Isurketan maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian adierazitako gai arriskutsuak dauden ala ez biltzen duen adierazpena igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan ekoizte-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Ekoizpena	Poliesterrezko apar malgua	t		t	urtero
	Polieterrezko apar malgua	t		t	urtero
	Aglomeratua	t		t	urtero
	Guztizko ekoizpena	t			urtero
Material-kontsumoa	Poliola	t	Poliol kantitatea / apar-ekoizpena	t/t	urtero
	Isozianatoa	t	Isozianato kantitatea / apar-ekoizpena	t/t	urtero
	Disolbatzaile-kontsumoa	t	Disolbatzaile-kontsumoa/guztizko ekoizpena	t/t	urtero
Energia-kontsumoa	Elektrizitate-kontsumoa	kWh	Elektrizitate-kontsumoa / energiaren guztizko kontsumoa	Kwh/t guztizko produktu	urtero
	Gasolio-kontsumoa	kWh	Gasolio-kontsumoa/ Energiaren guztizko kontsumoa	Kwh/t guztizko produktu	urtero
	Guztizko energia-kontsumoa	kWh	Energiaren guztizko kontsumoa/Ekoizpena	KWh/t guztizko produktu	urtero
Isuri atmosferikoak	Tolueno 2,4 Diisozianato isuriak/foku kontrolatu	g	Tolueno 2,4 Diisozianato isuriak/apar-ekoizpena	g/t	Hiru urtean behin
	Tolueno 2,6 Diisozianato isuriak/foku kontrolatu	g	Tolueno 2,6 Diisozianato isuriak/apar-ekoizpena	g/t	Hiru urtean behin
	Amina-isuriak/foku kontrolatu	g	Amina-isuriak/apar-ekoizpena	g/t	Hiru urtean behin
	Diklorometano-isuriak/foku kontrolatu	g	Diklorometano-isuriak/apar-ekoizpena	g/t	Hiru urtean behin
	Etilenglikol-isuriak/foku kontrolatu	g	Etilenglikol-isuriak/apar-ekoizpena	g/t	Hiru urtean behin
	KOG gisa isuritako KOHak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) /foku kontrolatu	mg/Nm^3	KOH isuriak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / foku kontrolatu	mg/Nm^3	Bost urtean behin
	Guztizko KOH isuriak	g	Guztizko KOH isuriak	g	Bost urtean behin
			Guztizko KOH isuriak/Apar-ekoizpena	g/t	Bost urtean behin
Ur-kontsumoa	Ur-kontsumoa	m^3	Ur-kontsumoa	m^3	Urtero
Uretara egindako isurketak	Sanitario-isurketak/ibilgua	m^3	Sanitario-isurketak/ibilgua	m^3	Urtero
	OEK kontzentrazioa	mg/l	OEK kontzentrazioa	mg/l	Urtero
	OEB kontzentrazioa	mg/l	OEB kontzentrazioa	mg/l	Urtero
	Olio eta koipeen kontzentrazioa	mg/l	Olio eta koipeen kontzentrazioa	mg/l	Urtero
	Solido-kontzentrazioa	mg/l	Solido-kontzentrazioa	mg/l	Urtero
Hondakinak	Sortutako hondakin arriskutsuak	t	Hondakin arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin arriskutsuak	%	Urtero
	Hondakin arriskutsu baliotuak	t			
	Polimero-hondakinak	t	Polimero-hondakinak/Guztizko apar-ekoizpena	t/t	Urtero
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	t	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	%	Urtero
	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak	t			

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kop.	Kopurua/urte	Urtero
IKS	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/Ez Zein/ urtea	Ekoscan/ Urtea eta/edo ISO14001/ Urtea eta/edo EMAS/ Urtea	Bai/Ez Zein/ urtea	Urtero

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Gainera, ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa (25.210 Gai plastikozko hainbat produkturen fabrikazioa), eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituena. Hori dela-eta, Recticel Ibérica, S.L. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduketak.

Sustatzaileak aurkeztutako oinarrizko proiektuan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatzeko neurriak sartuko dira, eta ikuskapenerako eta kontrolerako programa bat, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

d) Besteak beste, olioak, erregaiak, gehigarriak eta, orokorrean, fabrikan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

e) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

f) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

g) Larrialdi-egoeretan berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamendu-instalaziora eramango.

i) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbiketa lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

j) Arazketa-prozesuan sortutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, andel iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan biltegiratuko dira.

k) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen eremuetan.

l) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

m) Larrialdi-egoeretan babes zibilari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

n) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu honetan, baldintza hauek azpimarratu behar dira:

Estazioan erroilu erako edo gai pikortatuzko, edo antzeko berariazko gai xurgatzailea egongo da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko.

o) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isuria egitea eta isurtzeko muga-balioak gainditzea), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko du Ingurumen Sailburuordetzan.

p) Gertakari edo arazo larriren bat gertatu eta isurketa edo ustekabeko isuri atmosferikoren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak-i eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, datu hauek agertuko dira:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak, berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

q) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak. Hori egin ezean, erakunde eskudunaren aurrean egindako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzean, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Recticel Ibérica, S.L. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isuriei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurien gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) Apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnek, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute uztailaren 1eko 16/2002 Legeak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoak, 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzan agiri bidez egiaztatu beharko da ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.2.4 (Isurketaren emaria neurtzeko sistema) ; B.3.1 e) (Hondakin

arriskutsuen onarpen-agiriak) ; B.3.1 m) (Hondakin arriskutsuak kontrolatzeko erregistro-eredua) ; B.3.2 a) («Apar-ebakinak eta –puntak» eta «Txatarra» hondakinen sortutako kantitatea xehatua eta hondakin ez-arriskutsuen biltegien deskribapena); B.3.2 d) (Hondakin ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.3.2 f) (Hondakin ez-arriskutsuak kontrolatzeko erregistro-eredua); B.4 (Lurzorua babesteko neurriak); C.1 (Isuri atmosferikoen KEB txostenak), (isuri atmosferikoen kontrol-eredua); C.4 (Zarata kontrolatzeko proposamena); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren testu bategina); D.1 (Geldialdi programatuetan sortutako isuri eta hondakinen balioespena); D.3 a) eta b) (Mantentze-lanen eskuliburua, jarraipenerako eta kontrolerako programa); D.3 f) (Biltegiratzeko ziurtagirien egiaztagiria); D.3 g) (Larrialdi-kasuetarako material erabilgarrien zerrenda); D.3 h) (Kubetak husteko protokoloa); D.3 q) (Suteen aurkako egiaztagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla.

Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda. Isuri atmosferikoen foku berriari dagokionez, teknikari eskudunak oniritzitako agiri bat aurkeztu behar da, instalazioak aurkeztutako proiektuari eta IBBaren ebazpenean xedatutakoari jarraituz, eta atmosfera babesteko araudian ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla ziurtatzeko.

Atal honetako baldintza guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Ingurumeneko baimen bateratu honetan jasotako ibilgura egindako isurketen baldintzei dagokienez, Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren 261. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoak, eta baldintza horiek hainbat aldiz ez betetzea berrikusi, bertan behera utzi eta indargabetzeko kausa izango dira.

Seigarrena.– Recticel Ibérica, S.L. enpresak ebazpen honen xede den poliuretanozko apar malguak horren poliesterrezko, polieterrezko eta aglomeratuzko aldaeretan fabrikatzeko eta eraldatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Recticel Ibérica, S.L. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Recticel Ibérica, S.L. enpresari, Legutianoko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hori guztia azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 5a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.